

## Datu pertsonalak babesteko aplikatu beharreko araudia

- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, datu pertsonalak babesten dituenaren.
- 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, informazioaren gizartearen zerbitzuei eta merkataritza elektronikoa buruzkoa.
- 32/2003 Lege Orokorra, azaroaren 3koa, telekomunikazioei buruzkoa.
- 994/1999 Errege Dekretua, ekainaren 11koa, datu pertsonalak dauzkaten fitxategi automatizatuaren segurtasun neurriei buruzko Erregelamendua onesten duena.
- 424/2005 Errege Dekretua, apirilaren 15koa, komunikazio elektronikoen zerbitzuak emateko baldintzei buruzko arautegia, zerbitzu unibertsala eta erabiltzaileen babesa onesten dituenaren.
- 143/1994 Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoetako organoen menpeko fitxategi automatizatuak, datu pertsonalak biltzen dituztenak, arautzen dituenaren [Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin kontraesan ez dagoen guztia].
- 11/2007 FORU LEGEA, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko.

Espainiako Konstituzioak [18. artikulua] bermatzen ditu ohorerako eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea. Ezartzen du, halaber, legeak mugatuko duela informatikaren erabilera, eta hala herritarrei bermatuko beren ohorea, norberaren nahiz familiaren intimitatea eta eskubideen baliatze betea.

Hezkuntza Departamentua  
Laneko Arriskuei aurrea hartzeko Atala

Poligono de Landaben, C/E y F  
310012 - Iruña  
Tfno.: 848 42 37 69  
Fax: 848 42 37 38

E-mail: [sección.prevenición.educación@cfnavarra.es](mailto:sección.prevenición.educación@cfnavarra.es)

# Datu Pertsonalak Babesteari Dagokionez Jakin Behar Duzuna

Datuak babesteko  
dekalogoak



Nafarroako Gobernua  
Hezkuntza Departamentua  
Laneko Arriskuei aurrea hartzeko Atala



Nafarroako Gobernua  
Hezkuntza Departamentua  
Laneko Arriskuei aurrea hartzeko Atala

# Datuak babesteko dekalogoia

1 Legeak babesten du pertsona fisiko identifikatuari edo identifikagarriari dagokion informazio guztia (izena, helbidea, egoera zibila, adina, NAN...).

2 Zuk modu librean, garbian, zehatzean eta informatuan baimena ematen diezun pertsonak edo erakundeak zure datu pertsonalak bildu ahal izango dituzte, legeak berariaz ezarritako kasuetan izan ezik.

3 Badira legeak bereziki babestutako datuak, adibidez herritarren ideologiakoak, sindikatuko afiliazioak, sinesmenekoak, erlijioak, arraza jatorrikoak, **osasunekoak** edo bizitza sexuak.

4 Datu pertsonalak biltzeko mugak daude, datu horiek beti zehatzak, egokiak eta biltzearen helburuari doituak izango baitira.

5 Zure datu pertsonalak helburu jakin eta legezko baterako baino ezin dira eskatu, zuk horretarako baimen informatua eman ondoren.

6 Zure datuak bakarrik erabili daitezke bildu zirenean zuten helburua betetzeko behar den eta egokia den epearen barruan.

Legeak ondoko eskubideak ezagutzen dizkizu:

1. **Informazio eskubidea.** Datu pertsonalak bildu aurretikoa da. Jakinarazi behar dizute zer tratamendu emango dieten zure datuei, datuek zer helburu izango duten, zein den datu pertsonalen fitxategiaren arduradunaren identitatea eta zer eskubide dituzun.
2. **Sartzeko eskubidea.** Fitxategiaren arduradunaren aurrean, ondoko eskubideak erabili ditzakezu:
  - Doako informazioa zuri ematea tratatzen ari diren zure datu pertsonalen gainean.
  - Fitxategian bilduta dauden zure datu pertsonalen jatorria jakitea.
  - Zure datu pertsonalak hirugarren bati edo batzuei eman direla edo eman daitezkeela jakitea.
  - Zure datu pertsonalei zer erabilpen emango zaien eta zertarako erabiliko diren ezagutzea.
3. **Zuzentzeko, baliogabetzeko eta kontra egiteko eskubidea.** Eskubide hau erabili dezakezu, zure datuei emandako tratamendua ez badator bat legeak xedatutakoarekin, edo bildutako datuak zehazgabeak edo osagabeak badira.

8 Legeak ezagutzen dizkizun eskubideak pertsonalak dira eta zuk zeuk erabili behar dituzu datuen fitxategiaren arduradunaren aurrean.

9 Fitxategiaren arduradunak zure eskubideak babestu behar ditu. Arduradun horrek ez badie zure eskaerei erantzuten legeak ezarritako epeetan, aukera izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentziara jo eta zure eskubideak zain ditzatela eskatzeko.

Datuak Babesteko Espainiako Agentzia.

Jorge Juan k., 6

28001-Madril.

Telefonoa: **901 100 099**

(Herritarren erantzuteko arloa)

Fax: **91 445 56 99**.

Posta elektronikoa: **ciudadano@agpd.es**.

10 Zuk modu publikoan eta doan kontsulta ditzakezu datuak babesteko agentzietako datuak, zure datu pertsonalak dauzkaten fitxategiez informatzeko. Agentziek informazioa emango dizute Agentziako Erregistroan inskribaturik dauden fitxategien izenez, datu horiek zertarako bildu diren eta zein den fitxategiaren arduradunaren identitatea. Fitxategiaren arduradunaren aurrean erabili behar dituzu legeak ezagutzen dizkizun eskubideak.